



EUSKADIKO UNIBERTSITATE KONTSEILUAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EUNEIZ UNIBERTSITATE PRIBATUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA.

Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak 2020ko urtarrilaren 9an egindako bileran aho batez hartu zen EUNEIZ unibertsitate pribatuaren proiektuari buruzko txosten hau onartzeko eta Kontseiluko kideek egindako oharra txostenari eranskin gisa gehitzeko erabakia. Horiek horrela, Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitateak eta Arabako Foru Aldundiak egindako oharra txostenaren I., II., III. eta IV. eranskinetan, hurrenez hurren, jasota agertzen dira.

2018ko azaroaren 8an, Iñigo Sánchez de Movellán Torrent-ek, gradu eta gradu-ondoko goi irakaskuntzak ematea helburu nagusia duen EUSTEIZ 2018 S.A. merkataritza-elkartearen administratzaile bakarrak, EUNEIZ unibertsitate pribatua ezagutzeko eskaera sartu zuen Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzara, unibertsitate pribatuak libreki sortzeko abenduaren 21eko 6/2001 legeak, Unibertsitateenak, eta otsailaren 25eko 3/2004 legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 108. 1. artikuluan erregulatzen duten eskubideaz baliatuz.

Unibertsitate pribatu hori sortu eta ezagutzeko eskaeraren kontrako txostena (aldekoa 5. eta 6. dimentsioetarako) eman du, 2019ko apirilaren 4an, Unibasq-ek- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak.

Estatuko Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorreko Batzorde Delegatuak eskaeraren aldeko txostena, baldintzapean, eman du 2019ko ekainaren 5ean.

2019ko abenduaren 3an, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak EUNEIZ unibertsitatea ezagutzeari buruzko txostenaren eranskina eman zuen. Eranskin horretan ez da txostenaren kalifikazioa aldatzen eta ekainaren 5eko txostena berresten da.

2019ko abenduaren 5ean, 2018ko azaroaren 8an emandako ezagutze-espeditentza Unibasq-ek atzemandako akatsei buruzko informazio osagarria sartzeko Iñigo Sánchez de Movellán Torrent-en eskaera Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzara sartu zen.

2020ko urtarrilaren 9an, EUNEIZ unibertsitate pribatuaren proiektuari eta ordurarte aurrera eramandako tramiteei buruzko informazioa helarazi zion Euskadiko Unibertsitate Kontseiluari Hezkuntza Sailak.



AURREKARIAK

Abenduaren 21eko Unibertsitateen 6/2001 lege organikoak, apirilaren 12ko 4/2007 lege organikoaren bidez aldatuak, xedatzen duenez, legearen bidez eramango da aurrera unibertsitate publiko bat sortzeko eta unibertsitate pribatu bat ezagutzeko prozesua, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrak aldeztetik txostena eman ondoren.

Otsailaren 25eko 3/2004 legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, xedatzen duenez, *“edozein pertsona fisikok edo juridikok izango du publikoak ez diren unibertsitateak ezagutzeko prozesua sustatzearen ahalmena, unibertsitateei buruzko oinarritzako legeriak ezarritako muga edo debekuak oztopo bakarra direla”*.

Halaber, otsailaren 25eko 3/2004 legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, xedatzen duenez, Eusko Legebiltzarrak du unibertsitate publikoak sortu eta ezabatzearen ardura, baita unibertsitate pribatuen ezagutzarena ere.

Maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoak, eta Euskal Unibertsitatearen Sistemaren 3/2004 legeak xedatutakoaren arabera, Unibasq-eren- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren txosten bat behar dute unibertsitateek, sortu eta ezagutuak izateko.

Otsailaren 25eko 3/2004 legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 65.1. artikuluan xedatzen duenez, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua da euskal unibertsitate-sistema koordinatzeko eta Eusko Jaurlaritzari, unibertsitateen arloan, kontsulta eta aholkularitza emateko organoa. Halaber, 65.2. artikuluan xedatzen duenez, unibertsitate berriak sortu edo ezagutzeko lege-proiektuak ezagutu behar ditu, Gobernuari helarazi aurretik, Kontseiluak.

Otsailaren 25eko 3/2004 legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 62.3.a artikuluan xedatutakoaren arabera, autonomia erkidegoaren eremuan kokatuta dauden unibertsitate pribatuei eta, haien neurrian, eliza katolikoko unibertsitateei begira, unibertsitateen arloko sail eskudunak du unibertsitatea ezagutzeko lege-proiektua egitearen edo, behar izanez gero, proiektu hori bertan behera uztearen ardura. Bi kasuetan, Eusko Jaurlaritzari egin behar dio proposamena.

MUGARRI GARRANTZITSUENAK

EUNEIZen prestakuntza-eskaintzak bi fakultate azaltzen ditu: Osasun Zientzien fakultatea eta teknologia interaktibo berrien fakultatea, ondorengo bederatzi titulazioak emateko:

- Osasun Zientzien eremuan:
 - Fisioterapiako gradua (240 ECTS);
 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua (240 ECTS);
 - Jarduera Fisikoaren, Kirolaren eta Fisioterapiaren Zientzietako gradu bikoitza (382 ECTS);
 - Jarduera Fisikora eta Kirolera Berregokitze unibertsitate-masterra (60 ECTS);
 - Kirol Teknikazioko unibertsitate-masterra (60 ECTS);
- Arte eta Humanitateen eremuan:
 - Musika Ekoizpeneko gradua(240 ECTS);
 - Bideo-jokoetarako eta joko aplikatuetarako Sormen Artistikoko gradua (240 ECTS);
- Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen eremuan:
 - Ekoizpeneko eta Eduki Digitalen Ekintzailetzako unibertsitate-masterra;
- Ingeniaritzaren eta Arkitekturaren eremuan:
 - Eduki Digital Interaktiboetako gradua (240 ECTS);

Vitoria-Gasteizko Biosfera pasealekuaren 6.ean dagoen Salburua eraikinean kokatuko da, aurreikuspenen arabera, unibertsitatea; izan ere, Euskadiko hiriburua da Vitoria-Gasteiz, enpresa, merkataritza eta kultur mailan balio estrategiko handia du, kultur turismoa sustatu du, iraunkortasunean eta aurrerapenean oinarritutako proiektu bat sustatu du eta kirol mailan, kirol profesionalaren mailan eta osasunaren eremuan gorputz-jarduera sustatzeko prozesuan erreferentzia bat da eta, arrazoi horiengatik, besteak beste, kokatuko da Vitoria-Gasteizen unibertsitatea.

Bi unibertsitate-eskolaren esperientziak babesten du EUNEIZ sortzeko proiektua: ENTI-Bartzelonako Unibertsitateari atxikita dagoen eta 2013an sortu zen zentroa- eta EUSES, Gironako Unibertsitateari atxikita dagoen zentroa, 2009an sortua. Fisioterapiako Unibertsitate Arteko Gradua ez ezik, osasunera eta kirolera aplikatutako *Serious Games* prestakuntza espezifiko, Harvard Medical School-ekin batera egiten dena, ere eskaintzen dute.

EUNEIZ unibertsitateak bere gain hartzen du ondorengo puntuak gauzatuko dituen goi hezkuntza bat eskaintzeko konpromisoa:

- Graduatuen bidez hazkunde eta garapen ekonomiko eta soziala sustatzea. Graduatuek horiek, munduko herritarrak diren aldetik, ekonomia global berrirako egongo dira prestatuta eta testuinguruan era positiboan eragina izateko gai izango dira, Informazio eta Komunikazio Teknologietan oinarritutako abangardiako prestakuntza baten bidez. Teknologia horiek prestakuntza-bitarteko desberdina da eta, praktika profesional intentsiboan, tresnak ere dira.

Toki mailako aberastasuna sortzeko prozesu iraunkorrari laguntza ematea eta kanpoko kapitala erakartzea. Horretarako, ikerketa-estrategia aplikatu eta eraldatzaile bat erabiliko du, lankidetzeta eta garapenerako proiektu berritzaileak gauzatuko ditu eta instituzioaren eta gure herrialdearen giza kapitala nazioarte mailan sustatuko du, horretarako teknologia berriak sustatzen duten espazioak baliatuz.

- Unibertsitateko ikasle, irakasle eta ikertzaileen nazioartekotzea sustatzea. Horretarako, EUSES-UdG eta ENTI-UB proiektuan dagoeneko dauden sinergia eta tresnak erabiliko ditu. Halaber, Euskadiren hezkuntza-eskaintza guztia nazioartekotzeko prozesuan lagunduko du.
- Migrazioari eta nazioarteko mugikortasun profesionalari begira kapital intelektualak garatzea eta kapital hori hemen garatzea lortzea. Ikasleen lanaren bidez berrikuntzaren eta ekintzailetzaren ekimenak Vitoria-Gasteizera eta Euskadira ekartzea.

Behar den dokumentazio guztiarekin aurkeztu da eskaera, tramitatzeko espedienteari Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzan hasiera eman ahal izateko.

2019ko urtarilaren 14an, espedientearen dokumentazioa bidali zion Unibasq-ri- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari Unibertsitate Politika eta koordinazioko Zuzendaritzak, eta unibertsitatea ezagutzeko baldintzak betetzeari buruzko txosten bat emateko eskaera egin zion.

2019ko apirilaren 23an, Unibasq-eren- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren txostena jaso zuen Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak. Txosten horretan proiektuaren sei dimentsioak ebaluatzen dira: (1) titulazio ofizialen gutxienezko eskaintza akademiko bat izatea; (2) ikerketa-programazio egoki bat izatea; (3) behar adina pertsonal irakasle eta ikertzailea, trebakuntza egokiarekin, izatea; (4) funtzioak betetzeko instalazio, bitarteko eta baliabide egokiak izatea; (5) zerbitzua emango dela eta jardueren mantentzea bermatzea; (6) antolaketa eta egitura egokia izatea. Dimentsio bakoitzean balorazio bat egin da eta, balorazio horretan, berrikusi edo birplanteatu behar diren alderdiak adierazten dira (1., 2., 3, eta 4. dimentsioek ez aldekoaren kalifikazioa jasotzen dute, eta 5. eta 6. dimentsioek aldekoa).

2019ko ekainaren 5ean, Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorreko Batzorde Delegatuak aldeko txostena eman zuen. Aldeko txosten horretan, dena den, bi akats aipatzen zituen, irakasleen datuei eta eraikina eraikitzeari buruzkoak, eta jarduera hasi aurretik derrigorrean zuzendu beharrekoak zirela adierazten zuen.

2019ko abenduaren 3an, Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorreko Batzorde Delegatuak eranskin bat gehitu zion EUNEIZi buruzko 2019ko ekainaren 5eko txostenari. Eranskin horretan agerian jartzen dituzte Ministerioko zerbitzu teknikoek egindako aldeko txostenaren eta Unibasq-ek, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak, egindako kontrako txostenaren artean dauden desadostasunak. Eranskin horretan adierazten denez, proiektu horrek ez ditu maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoak, egiten dituen exigentziak betetzen.

2019ko abenduaren 5ean, "EUNEIZ unibertsitate pribatua ezagutzeko memoriaren informazio osagarria " izeneko dokumentua sartu zuen Iñigo Sánchez de Movellán Torrent-ek, EUSTEIZ 2018 S.A. merkataritza-elkartearen administratzaile bakarrak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzara, aurkibide honekin:

- Sarrera;
- 19-22ko PSU aurrera eramateko ardatzetara egokitzea;
- Espazio eta instalazioei buruzko informazio osagarria;
- Musika-ekoizpenaren eta eduki digitalen arloetan EUNEIZen ikerketa-jarduera;
- ENTI-UB informazio osagarria;
- ENTI eta EUSES ikerketa-jardueraren aipamen laburra;
- Eranskinak;

Informazio hau lotuta dago Unibasq-ek eta Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorreko Batzorde Delegatuak atzemandako puntu ahulekin, eta Batzorde Delegatuaren txostenean adierazitako puntu ahulak jarduera hasi aurretik zuzendu diren egiaztatzeko izango da baliagarri.

Behar den tokian ondorioak izan ditzan

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 31

Miren Artaraz Miñón
EUSKADIKO UNIBERTSITATE KONTSEILUKO IDAZKARIA

**ERANSKINAK**

I.ERANSKINA: EUNEIZ txostena Universidad del País Vasco/Euskal Herriko

Unibertsitatea II.ERANSKINA: EUNEIZ txostena Deustuko Unibertsitatea

III.ERANSKINA: EUNEIZ txostena Mondragon Unibertsitatea

IV.ERANSKINA: EUNEIZ txostena Arabako Foru Aldundia

EUNEIZ UNIBERTSITATE PRIBATUA, TEKNOLOGIA BERRIEN, KIROL ETA OSASUN UNIBERTSITATEA, SORTZEKO PROPOSAMENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak eta Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluak 2020ko urtarrilaren 9an egin zuten bileran, gai-zerrendaren 4. puntuan, EUNEIZ unibertsitate pribatua, Teknologia Berrien, Kirol eta Osasun Unibertsitatea, sortzeko proposamena aurkeztu zen. Unibertsitate hori aurrera eramateko faseak ondorengoak dira:

1. Bete beharrekoak ez diren derrigorrezko txostenak egitea:
 - a. Unibasq-ren- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren txostena.
 - b. Estatuko Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorreko Batzorde Delegatuaren txostena.
2. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak unibertsitate hori ezagutzeko lege-proiektua egitea eta lege-proiektu hori Eusko Jaurlaritzari egitea.
3. Eusko Legebiltzarrak EUNEIZ unibertsitate pribatua ezagutzeari baietz edo ezetz esatea.
4. Unibasq-ek titulazioak egiaztatzea.
5. Jarduerari hasiera emateko behin-betiko oniritzia.

Lehen fasean gaude eta Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak du informatua izateko eta egokitzen diren alegazioak egiteko eskuduntza, legebiltzarkideei helarazteko. Legebiltzarkide horiek irabazteko asmoa duen unibertsitate pribatu hori Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri behar den erabaki beharko dute.

Garrantzi handiko gertakaria dela adierazi behar dugu, 1997. urtetik ez baita horrelakorik gertatu. Izan ere, urte horretan Mondragon Unibertsitatea ezartzea erabaki zen eta, hori kontuan hartuta, erabakia garrantzi handi-handikoa da. Horregatik, EUNEIZen proposamena zorrotz aztertzea erabaki da.

1 - Arloa erregulatzen duten arauak urratzea eta gizartean eskaerarik ez izatea.

Abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak, Unibertsitateenak, 4. artikuluan unibertsitate pribatuak ezagutzeari buruzkoa ezartzen du, eta maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretoak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoak, unibertsitate pribatuak sortu eta ezagutzeko baldintzen oinarritzko erregulazioa, besteak beste, agertzen du.

Unibertsitate pribatuak ezagutzeari buruzko estatu mailako oinarritzko araudi horretatik abiatuta, kasu honetan otsailaren 25eko 3/2004 legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, eta abenduaren 19ko 274/2017 dekretoak, gradu, master eta doktoretzaren tituluak lortzera bideratutako unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezarri eta kentzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera jokatu behar da. Izan ere, dekretu horrek ezartzen ditu egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateek, titulu horiek lortzera bideratutako unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezartzea edo kentzea eskatzeko, kontuan hartu behar dituzten irizpide orokorrak.

Horregatik, gai batzuk nabarmendu behar ditugu:

Euskal unibertsitate-sistemaren titulu ofizialen eskaintza harmonizatzeko exigentzia.

274/2007 dekretuak “*euskal unibertsitate-sistemaren titulu ofizialen eskaintza harmonizatzeari*” buruzkoa ezartzen du 2. artikuluan eta euskal unibertsitate-sistemaren eskaintza iraunkorra eta harmonikoa izatea exijitzen du. Horrek eskaintzan titulazioen eskaera sozialarengatik justifikatuta ez dauden errepikapenak ez gertatzea eta, gainontzeko irizpideen gainetik, eskaintzaren kalitateari lehentasuna ematea dakartza. Halaber, euskal unibertsitate-sistemaren titulazioen katalogoa osagarria izatea exijitzen du.

Horrekin batera, “*gradu, master eta doktoretzako unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezartzeko proposamenek, baimenduak izateko, gizartearen eta ikasleen aldetik egiazko eskaera bat dagoela hartu beharko dutela kontuan*” xedatzen du. Gainera, kanpoko azterketak eta abalak izan behar dituzte oinarri. Horregatik, eskaerak, irakaskuntza horiek egin ditzaketen ikasleengandik ez ezik, gizarte osotik ere etorri behar du. Irakaskuntzek Euskal Autonomia Erkidegoaren egitura sozioekonomikoa hartu beharko dute kontuan eta, gainera, lan-merkatuaren ahalmen eta premiei begiratu beharko diete.

EUNEIZen proposamenari dagokionez, hasieran aurreikusitako tituluen eskaintza 5 gradukoa, gradu bikoitzekoa eta 3 masterrekoa zen. Gainera, doktoretza-programak, masterreko berezko tituluak, Unibertsitateko espezialista-tituluak, Etengabeko Prestakuntzako irakaskuntzak eta ikastaro osagarriak artikulatzea aurreikusten du proiektuak. Titulazio horiekin eman nahi dio EUNEIZek bere irakaskuntza-jarduerari hasiera eta, hasierako prestakuntza-eskaintza ezartzeko prozesua 2024-2025eko ikasturtean osatu ondoren, Doktoretza Eskola sortuko du. Han teknologia berrien eta osasun-zientzien arteko interrelazioan zentratutako doktoretza-programa bat kokatuko da.

Zehatzago esanda, hasteko, hasierako eskaintza ondorengoa litzateke:

- Osasun Zientzien fakultatea
 - Fisioterapiako gradua
 - Gorputz Jardueraren eta Kirol Zientzietako gradua
 - Gorputz Jardueraren, Kirolaren eta Fisioterapiaren Zientzietako gradu bikoitza
 - Gorputz Jarduerara eta Kirol Lehiaketara Berregokitzeko unibertsitate-masterra
 - Kirol Teknikazioko unibertsitate-masterra
- Teknologia Interaktibo Berrien fakultatea
 - Eduki Digital Interaktiboetako gradua
 - Bideo Jokoetarako eta Joko Aplikatueterako Arte Sormeneko gradua
 - Musika Ekoizpeneko gradua (240 ECTS)
 - Eduki Digitalak Ekoizteko eta Ekintzailetzako masterra

EUNEIZen titulazioen eskaintzari kasu eginez, ondorengoa hartu behar da kontuan: Fisioterapiako gradua, 60 plaza berrirekin, ematen du dagoeneko EHUK, gradu hori berori datorren ikasturteetik aurrera, 120 plaza gehigarriekin, Deustuko Unibertsitatean ematen hasiko da eta Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzietako gradua EHUKo Arabako campusean bertan ematen da, 100 plaza berrirekin. Deustuko Unibertsitatearen kasuan, titulazio hori (150 plaza eskaintzen ditu) gradu bikoitz baten atala ere bada, Lehen Hezkuntzakoarekin batera.

Gorputz Jarduerara eta Kirol Lehiaketara Berregokitzeako unibertsitate-masterrari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitateak Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzietako masterra ematen duela adierazi behar dugu. Master hori gorputz jardueraren eta kirolaren ikerketan ezagutzak gaurkotzera eta espezializaziora bideratuta dago, osasuna, errendimendua, prestakuntza, kudeaketa, aisia edo gorputz-hezkuntza bezalako arloetan. Eduki Digitalen Ekoizpeneko eta Ekintzailatzako masterrari dagokionez, Bideo Jokoen Sorrerako bere masterra ematen du EHUK.

Eduki Digital Interaktiboetako eta Bideo Jokotara eta Joko Aplikatuertarako Arte Sormeneko graduak Bilbao Digipen-en ematen dira, Estatu Batuetako hezkuntza-sistemaren arabera. Bestalde, edukiari begira Musika Ekoizpeneko graduaren antzekoa den unibertsitate-titulazio baten titulu baliokide bat, ondorio guztietarako, eskaintzen du Musikenek.

Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden beste zentro batzuek (Digipenek eta Musikenek) zabal eskaintzen duten titulazioen eskaintza berria abenduaren 19ko 274/2017 dekretuak agertzen duen arauaren kontrakoa da; izan ere, harmonikoa eta justifikaziorik gabeko errepikapenak egon gabekoa izan behar du Erkidegoaren eskaintza akademikoak eta, kasu honetan, dauden titulazioak bikoiztu eta, zenbait kasutan, hirukoiztuko lirateke.

Edonola ere, Fisioterapiako eta Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzietako graduak eskaintako plaza guztiak betetzen dituzten eta, beraz, ikasleen aldetik eskaera duten titulazioak diren arren, benetako eskaera batek egon behar du gizartearen aldetik eta merkatuan egresatutako pertsonak lan-munduan nola txertatu diren egiaztatu behar da.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak duela gutxi publikatu duen “2018-IVn lan-bizitzara sartzeari “buruzko ikerketan ematen dira EUNEIZek ematea aurreikusten dituen eta euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako batzuek dagoeneko ematen dituzten titulazio batzuei buruzko datuak. Zehatzago esanda, Fisioterapiako graduaz, gaur egun EHUK ematen duenaz, eta Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzietako Graduaz, EHUk ematen denaz, ari gara. Azken titulazio hori Deustuko Unibertsitatean ere ematen den arren, lehen pertsonak duela bi urte egresatu dira eta, horregatik, horri buruzko datuak ez daude txostenean sartuta.

2015. urtean Fisioterapiako graduaren lehen promozioak, 57 egresaturekin, bukatu zuen. LANBIDEk inkestak egiteko erabiltzen duen sistemaren bidez emandako datuak ikusita, promozio horren okupazio-tasa % 90ekoa izan zen, eta 2 hilabete inguru behar izan zituzten lehen enplegua lortzeko. Osasun-zientzien eremuan, 878 pertsona egresatu ziren eta okupazio-tasa % 96koa da. Bestalde, Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzietako graduari dagokionez, 2015. urtean 115 ikaslek bukatu zuten. LANBIDEn datuen arabera, okupazio-tasa % 86koa da eta 12 hilabete inguru behar izan zituzten lehen lana lortzeko.

Illo horretan, ez dugu hau ahaztu behar: ikerketa horrek berorrek % 8ko langabezia-tasa bat ezartzen du EHUK ematen dituen titulazioen kasuan, eta Fisioterapiaren egresatutako pertsonen % 10eko langabezia-tasak edo Gorputz Jardueraren edo Kirolaren Zientzietan egresatutako pertsonen % 14koak gainditzen dute tasa hori.

Halaber, datu hauek bereziki deigarri egiten zaizkigu: lanaldi murriztuan lan egiten duten pertsonen ehunekoa, % 45 baino gehiago bi kasuetan, eta aldi baterako enplegu-tasa: % 50 Fisioterapiaren kasuan, eta % 59 Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzien kasuan.

Horregatik, eta LANBIDEk emandako lan-munduan txertatzeari buruzko datuei kasu eginez, **ezin da esan** bete gabe dagoen **lan-merkatuaren demanda bat existitzen dela gaur egun**, ezta titulazio horietan egresatuen kopuru handiagoa behar dugula ere.

Erakunde sustatzailearen izaera.

Erakunde sustatzailea EUSTEIZ 2018, S.A. Pertsona Bakarreko Merkataritza Konpainia Anonimoa da eta Goi Graduan, Masterrean, Gradu Ondokoan, goi mailakoa ez den Lanbide Heziketan eta Hobekuntzan, Batxilergoan, unibertsitate-orientazioan, Lanbide Heziketan, erdi eta goi mailako Berariazko Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan eta mota guztietako prestakuntza jarraian irakastea du helburu soziala. Gainera, Vitoria-Gasteizko kirol-klub nagusietako bi: Saski Baskonia SAD eta Deportivo Alaves, erakunde sustatzaile gisa inplikaturik daude proiektuan. Espedientean ere

jasota agertzen denez, Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntza instituzionala eta soziala ditu unibertsitate berriak.

Ez dakigu zein izango den, zehatz-mehatz, Arabako Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak emango duten laguntza, baina instituzio publikoen aldetik irabazteko asmoa duen erakunde pribatu bati,- haren helburu soziala hezkuntzaren eremu zabaleko maila desberdinetan aritzea da,- laguntza zuzena emateak kezkatzen du bereziki EHU. Horretaz gainera, hau hartu behar dugu kontuan: unibertsitate publiko bat eta irabazteko asmorik gabeko bi unibertsitate pribatu daude EAEen eta unibertsitate horiek arazorik gabe eman ahal diote eremu horretan ustez egon daitekeen gizartearen demandari erantzuna.

Aipatutako graduen egiazko demanda bat existitzen bada, premia horri erantzuna emateko plaza publikoen eskaintza areagotzeko egin beharko genuke inplikaturako eragile guztiok lan edo, bestela, dauden unibertsitate pribatuek egin dezakete, bat baita Deustuko Unibertsitatearen eta EUNEIZen eskaintzak.

2- Proposamenaren kalitatea analizatzea.

2.1.- EUNEIZ ezagutzeko aurkeztu den memoria ebaluatzeko txostena, Unibasq-ek- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak egindakoa.

Unibasq-ek- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak euskal unibertsitate-sistemaren eremuan kalitatea ebaluatzea, akreditatzea eta ziurtatzea ditu helburu, Espainia eta nazioarte mailako markoa kontuan hartuta. Horrek mota horretako proiektuen ebaluazioan aditua dela eta euskal unibertsitate-sistema ondo-ondo ezagutzen duela esan nahi du, bere eskuduntzaren eremua baita.

Eusko Jaurlaritzaren eskariz, Unibasq-ren ebaluazio-txosten bat jaso du proposamenak, haren erreferentziako agentzia baita. Edonola ere, irakaskuntza-planari buruz informatu behar du Unibasq-ek, ondorengo hau xedatzen baitu maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoak, 6. artikuluan:

"Kalitatea eta Akreditazioa Ebaluatzeko Agentzia Nazionalak (ANECA) ebaluatu beharko du plan hori edo, behar izanez gero, unibertsitatea kokatuko den Autonomia Erkidegoaren lurraldean kanpo ebaluazioa egiteko ahalmena duen organoak".

Proposamenaren bideragarritasunari buruzko arrazoizko kezka azaltzen du Unibasq-ek eta KONTRAKO txostena ematen du, balorazio negatiboa ematen baitie ebaluatutako 6 dimentsioetako 4ri. Ondoren, dimentsio horiei buruzko komentario negatibo batzuk nabarmentzen dira.

a) 1.DIMENTSIOA: Titulazio ofizialen gutxienezko eskaintza bat izatea.

"[...] Ez da eskaintzako titulu guztietan koherentzia argirik ikusten".

"[...] Haien artean, itxuraz behintzat, harremanik ez duten bi titulazio-multzo eskaintzen dira. Ez dira eskaintza oso bat kokatuta dauden adarretakoren bat berean ere eta, antza denez, ez daude proposatzen dituen gizartearenak ez diren zenbait puntu indartsu edo aktiboren aprobetxamenduari lotuta".

"Proposatutako eskaintza gehiago dagokio unibertsitate bati atxikitako zentro bati, unibertsitate bati baino. Izan ere, proiektua lotuta dagoen ENTI eta EUSES zentroak dagoeneko finkatuta dauden unibertsitateetako zentro atxikiak dira".

b) 2.DIMENTSIOA Ikerketa-programazio egokia izatea.

Aztertutako dokumentaziotik ondorioztatu daitekeenez, ez du behar duen ikerketa-ibilbidea egiaztatuta geratzen denik ematen. Ez dira pertsonal ikertzailearen curriculumak aurkeztu eta ez dira ikerketa-taldeak osatuko dituen pertsonal ikertzailearen perfila deskribatzen.

Halaber, denbora osoan ari den pertsonal doktorearen kopurua kontuan hartuta, ez du etorkizun batean aurrera eraman nahi duten ikerketa-programa gauzatzeko ahalmenik izango duenik ematen.

"[...] Ez dira pertsonal ikertzailearen curriculumak aurkeztu".

"Oro har aurkeztu diren alderdiak ez doaz ikerketa-plan konkretu batekin batera ...".

"Ikerketa-arlo kritikoak eta ikerketan liderrak izango diren akademikoak identifikatzea falta dela ikusten da, epe motzean kanpo finantzazioa jasotzeko, maila oneko argitalpen zientifikoak sortzeko eta ikerketa-proiektuetan beste zentro batzuekin batera lankidetzan aritzea sustatzeko".

"[...] Ez du eduki digitalen garapenari eta, are gutxiago, musika-ekoizpenari zuzenean lotuta dagoen ikerketa-planik dagoenik ematen. Horregatik, ikerketa-plana aurkeztutako irakaskuntza-eskaintzaren % 50era bakarrik lotuta dagoela ematen du".

c) 3.DIMENTSIOA: Behar adina pertsonal irakasle eta ikertzaile, behar den trebakuntzarekin, izatea.

Abenduaren 19ko 274/2017 dekretuak, gradu, master eta doktoretzaren tituluak lortzera bideratutako unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezarri eta kentzeari buruzkoak, ondorengoak exijitzen du: *"5.-Proposatzen dituzten titulazioen bideragarritasuna eta iraunkortasuna, dituzten finantza- eta giza baliabideetatik abiatuta, justifikatu beharko dituzte unibertsitateak".*

Proposamenak ondorengoak garrantzi handia izango duela adierazten du: EUSES-UdGko / EUSES-URVko (Gironako Unibertsitateari eta Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitateari atxikita dagoen Escala Universitaria de la Salut i l' Esport) eta ENTI-UBko (Bartzelonako Unibertsitateari atxikita dagoen Escala de Noves Technologies Interactives) irakaskuntza- eta ikerketa-taldeek, proiektuaren bultzatzaileek, emango duten esperientzia akademikoa. Espedientean adierazten denez, gradu eta masterren eskaintza akademikoa bat dator, partzialki, proiektu akademikoari euskarria emango dioten atxikitako zentro katalan horiek gaur egun eskaintzen dutenarekin. Hala ere, aztertu ahal izan dugun dokumentaziotik ondoriozta daitekeenez, ez da laguntza edo parte-hartze hori nolakoa izango den jasota agertzen.

Gainera, aurkeztu den proposamenak ez du maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuaren, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoaren, exijentzia betetzen. Exijentzia horren arabera, irakasleen % 60k, gutxienez, beren funtzioak denbora osoko dedikazio-erregimenean beteko dituztela bermatu behar dute unibertsitateek.

Ezarri den lehen urtean emandako informazioaren arabera, Osasun Zientzien fakultateko irakaskuntza-pertsonalaren % 72 izango da doktorea; Teknologia Berri Interaktiboen fakultatearen kasuan, irakasleen % 61,9 ezartzen den lehen urtean izango dira doktoreak.

"

Falta da denbora osoan ari izango direnei, graduak edo masterrak emango dituztenei, parte hartzen duten titulazionarioi eta, batez ere, haien curriculumei buruzko informazioa, laburtua izan arren. Bakoitzak zein titulaziotan emango duen irakaskuntza jasota agertu beharko luke, baita araudian exijitutako irakasle doktoreen proportzioak betetzen direla segurtatzea ere “.

"Kasu guztietan kontratazio-proposamenak dira, baina gaur egun ez da proposatzen dituen elkartearen eta aipatutako doktoreen arteko loturarik existitzen eta, horregatik, lotura hori benetan gertatuko dela ezin da bermatu “.

d) 4.DIMENTSIOA Funtzioak betetzeko instalazio, bitarteko eta baliabide egokiak izatea.

Puntu honetan ere bermeak ez egoteak kezkatzen du, osasunaren arloan kalitatearen espazio fisiko espezifikoak behar dituzten titulazioak proposatzen direla, batez ere, kontuan hartuta. Horiek horrela, Unibasq-eren txostenak ondorengo adierazten du:

"Osasun Zientzien fakultatean 4 gela izango lirateke, eta, horregatik, lau titulazioen lehen kurtsoak bakarrik izango luke tokia. Goiz eta arratsaldean programatuz bigarren kurtsoak ere tokia izan lezake. Ez litzateke gradu bikoitzeko ikasleentzat espaziorik izango, aparteko taldean ematen bada, eta, graduetako taldeei batzen bazaie, 85 ikasle berriko kopurua (60 + 25) lor liteke, eta ez lirateke gela handiengan (80ko aforoa) kabituko. Irakaskuntzak Salburua eraikinean, Buesa Arena pabilioian eta Bahh-n ezartzeko lehen kurtsoetarako aurreikusitako behin-behineko baliabideek ez dute, musika-ekoizpenari eta bideo-jokoei lotutako ikasketen kasuan, irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak normal gauzatuko direla bermatzen. Ez dira dauden baliabideak matrikulatutako ikasleen kopuruaren eta irakaskuntza horien espezifikotasunaren arabera kuantifikatzen “.

2.2.- EUNEIZ unibertsitatea ezagutzeko espedienteari buruzko txostena, Estatuko Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorreko Batzorde Delegatuak eginda.

Bestalde, maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoak, 3. artikuluan xedatutakoaren arabera:

"Legearen bidez eramango da aurrera unibertsitate publikoak sortzeko eta unibertsitate pribatuak ezagutzeko prozesua, Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorreko Batzorde Delegatuak aldeztu aurretik txostena egin ondoren eta abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak, Unibertsitateenak, 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Unibertsitateak sortzearen edo ezagutzearen aldeko edo kontrako iritzia emango duen Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorren txostena egiteko, indarreko legerian ezarritako baldintzak hartuko dira kontuan “.

Batzorde horren txosten teknikoan adierazten denez, memoriak 420/2015 errege dekretuan xedatzen diren puntu guztiak lantzen dituen arren, - eta, horregatik, aldeko txostena ematen da, -
"Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiak atzemandako ondorengo akatsak zuzendu direla egiaztatu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunak:

Giza baliabideak direla eta:

" Maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak, gradu eta masterreko titulazioetan, doktoreen gutxienezko ehunekoari begira zehazten dituen exijentzien arabera da proposamena. Hala ere, beren funtzioak dedikazio osoko erregimenean beteko dituzten irakasleen ehunekoari dagokionez, emandako informazioa osatu gabe dagoela adierazi behar da [...] eta, horregatik, araudiak zehazten duen % 50eko gutxienezko ehunekoa betetzen den zehazterik ez dago “.

Instalazioak direla eta:

"Ondorengo puntuak nabarmendu behar dira: ez dira Alavés Kirol Klubaren etorkizuneko kirol-hiriaren proiektua, aipatutako eraikina eraikitze prozesuaren proiektua eta berorren planoak adierazten. Horregatik, zein fasetan dagoen ez dakigu".

Hau ere:

"Funtzionatuko duen lehen bi urteetan aurrera eraman nahi dituen irakaskuntza- eta ikerketa-funtzioak betetzeko behar diren azpiegitura eta bitarteko materialak izango ditu EUNEI Zek. Dena den, aldi hori pasa ondoren, unibertsitateak bere jarduerarekin jarraitzeko espazio egokiak izango dituela bermatu beharko du elkarte sustatzaileak."

3- Ondorioak

Irabazteko asmoa duen unibertsitate pribatu bat Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko aukera aztertzen ari dela gogorarazi behar dugu eta horrek ardura itzela eskatzen du, batez ere orain arte dauden bi unibertsitate pribatuak (Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) irabazteko asmorik gabeko unibertsitateak direla eta euskal gizarteari ematen dioten zerbitzua unibertsitate publiko bakarrak ematen duenaren antzekoa dela kontuan hartuta.

Proiektuak epe luzerako, eta ez bi urterik begira, izan behar du bideragarri, eta ikerketa-zutabe argiak izan behar ditu, ezin baita ikerketarik gabeko unibertsitateaz hitz egin. Gure ikerketa-taldeek eskatzen dituztenen antzeko ikerketa-proiektu bat bat onartzeak eta finantzatzeak ikerketa-taldeko kideen ibilbide zientifikoa era esanguratsuan badute oinarri, arrazoi gehiago da unibertsitate-proiektu batek zutabe argi batzuk, unibertsitate hori eratuko duen ekipoaren historial akademikoak osatuak, izan behar dituela esan ahal izateko.

Iritzi interesatuak azaltzea ez da kontua. Ezin dugu hau ahaztu: aditu akademiko eta profesionalak egin dute Unibasq-eren txostena eta, akademikoen kasuan, denak unibertsitate-katedradunak dira, ez dute euskal unibertsitate-sistemearekin zerikusirik eta ospe akademiko handikoak dira.

